



## Sute denboraldia

# Uda ostean berotasuna

Greziar mitologiak kontatzen duenez, Prometeok sua lapurtu zion Zeusi gizakiaz errukitu eta hauei indar pixka bat eman asmoz. Azkenean, zigortu egin zuten Jainkoena zen elementu hau gizaki ahulen eskura jartzeagatik. Mitoak mito, Jainkoen beldurrak egia bilakatu eta asko dira urtero gizakiaren erruz erretzen diren baso, sastraka eta belardiak. Euskal Herrian urrian hasi zen sute denboraldia eta apirilera arte iraungo du. Nahiz eta sute kopuruak gora egin munduan, azken urteetan nabarmen egin du behera Euskal Herrian, honezkero, lotsagorrituta behar duen Prometeori zigorra kentzen lagundu nahi bagenio bezala.

**BEREN OHIKO TENPERATURETARA** ezin bueltatu dabilta oraindik ere Grezia edo Kalifornia-ko lur sail berotuak. Euskal Herrian 1982 eta 1989. urteetara egin behar da atzera garai goriez hitz egiteko. Milaka izan ziren erretako hektareak, eta hura bizitu zutenen memoriaren sail bat ere garrek belztu zutela esan liteke. Orditik ez da hain egoera larririk izan, eta azken urteotan beheranzko joera garbia da administrazioetako estatistikei begiratuz gero. Hala ere, uda igaro eta eguraldi hotz eta euri-tsua hasi diren arren, basozain eta suhiltzaileek sasoi honetan pizten dituzte alarma guztiak, gure lurraldean sute arriskua urritik udaberrira arte luzatzen baita.

Gutxi izango dira Gipuzkoan Donostia, Lasarte, Astigarraga eta Usurbilgo mendiak Juanito Zapirain basozainak bezain ondo eza-gutzen dutenak. “Bizitza karanbola bat da”, dio irribarrez. Txiripaz ez omen zen geratu baserrian, eta kontuak kontu, mendizain izateko oposizioetan eman zuen izena. Lehen urteetan Elgoibar (Gipuzkoa) inguruan ibiltzea egokitu bazitzaion ere, ondorengo hamalauak Donostialdeko txoko-bazterrak zaintzen daramatza. Bakarka edo binaka, goizetan lan aktiboagoa egiten dute; adibidez, inguruak gainbegiratu, isuriren bat izan bada hara joan eta neurriak hartu, ehiztariak kontrolatu edo mendira joan nahi duen kamioiren bati baime-na eman. “Beti dago zerbait egiteko”, dio. Bere lana gustuko bide du, betidanik izan baitu naturarekiko miresmena, eta horren adibide da ongi zaindutako koaderno bat erabiltzen duela inguruko enborrik handienen perimetroei buruzko oharra hartzeko. Hamalau urtetan aurrera eramandako azterketa honen bidez, zuhaitzak hazten nola doazen erraz ikusten da. Adibide bat hartuta, “Markes basoko haritza” lehen aldiz 2003an neurtu zuenean 3,50 metroko perimetroa zuen eta 2007an 3,70ra hazia zen. Hala ere, bat baino gehiagoren garapena “haizeak botata” hitz tristeekin moztu behar izan du.

Errenteriako (Gipuzkoa) Zapirainen hitzetan, mendia ezagutuz gero, gauza jakina da Kantaurialdean hezetasun handia izaten dela udan; beroa egin arren, noizean behin euria ere egiten duenez, landaredia berde-berde izaten da. Berde den lekuak hezetasuna badela esan nahi du eta horrek ez dio suari aurrera egiten uzten, horregatik, umidurak behera egin ahala

igotzen da sute arriskua, zer esanik ez hego haizeak hauspo-lana egin dezakeenean. Araba eta Nafarroako mendiek itsasotik datorren hezetasunari eusten diote eta horrek mikroklima hezea sortzen du Euskal Herrian. Nikolas Regerat Hendaia-ko (Lapurdi) suhiltzaileen burua Zapirainekin bat dator: “Udan mendiak sobera berde izaten dira eta hor ezin surik sortu”. Udazkenetik aurrera temperaturek behera egiten dute eta landaredia lehortu egiten da. Otea, garoa eta orbela, besteak beste, lehor-lehor eginda geratzen dira lurreak geruza antzeko bat sortuz. Egoera horretan asko handitzen da sute arriskua, berotegi efektua eragiten baitio lurzoru idorrari. Euririk egin gabe egun batzuk daramatzanean, hego haizearen laguntzarekin, nahikoa da zigarrokin bat mendiak pixkanaka su hartzeko.

### Azken urteotako beheranzko joera

Dena den, administrazioek emandako datuen arabera, sute kopuruan beheranzko joera garbia ikusten da Euskal Herri osoan. Muturreko adibide bat hartuta, duela 25 urte, Arabaren laurdena ke artean joan zen, 2.667 ha erre baitziren 105 sutetan. Iaz, berriz, probintzia

Juanito Zapirainek  
20 urte inguru  
daramatza  
Gipuzkoako baso  
bazterrak zaintzen.



JUDIT FERNANDEZ

“Pare bat piromano bakoitzeko,  
milaka artzain edo nekazari  
arriskutsu daude”

JUANITO ZAPIRAIN, BASOZAINA

## EUSKAL HERRIKO GUNERIK ARRISKUTSUENAK



 Basozain kopurua probintziako  
 Inguru arriskutsuak

**Gipuzkoan:** Kostaldea. Batez ere Jaizkibel mendia.

**Bizkaian:** Nerbioi ibaiaren ezkerrialdea.

**Araban:** Arabako Errioxa.

**Iparraldean:** Dena orokorrean, Aturi ibaiaren inguruan izan ezik.

**Nafarroan:** Baztan, Iruñetik Tafallara eta Erribera aldean.

SUTEEN EBOLUZIOA AZKEN URTEETAN

Urtea	Gipuzkoa		Araba		Bizkaia		Nafarroa		Iparraldea		Guztira	
	Sute kopurua	Erretako hektareak	Sute kopurua	Erretako hektareak	Sute kopurua	Erretako hektareak	Sute kopurua	Erretako hektareak	Sute kopurua	Erretako hektareak	Sute kopurua	Erretako hektareak
2003	71	424	39	217	163	252	131	488	114	18	518	1.427
2004	18	71	43	37	108	124	88	338	8	8	285	577
2005	48	275	40	189	181	224	115	1.371	12	31	434	2.020
2006	25	18	35	25	55	140	83	770	2	8	285	887

berean 25 ha erre ziren 38 sutetan. Estatistikei erreparatuz, zenbakiak txikitzen joan dira eta azken urteotako mailarik baxuena izan zen 2006koa –ikus hurrengo orriko taula–. Aurten marka horiek hobetzeko bidetik doazen arren, oraindik ez dituzte datuak plazaratu.

Estatistiketarako txostena egiteko sute bakoitzaren ondoren basozainek duten ustea hartzen da kontuan. Txosten horiek urte amaieran plazaratzen dira eta urtearen balorazioa egiteko balio dute, bertan aipatzen baitira kalte, kostu eta kausak. Adibidez, Gipuzkoako iazko datuei so eginenez, deigarria da basozainek tximistei egotzi dizkietela suteen %2, nekazal erreketei %5, larreen erreketei %7 eta nahita emandakoei %33.

Kalte egin nahi duen norbaitek suaren jokaera ezagutzen badu, mendiko moto bat hartu eta metxero batekin mendi osoak kiskal ditzakeela erakutsi dio esperientziak Zapiraini. Gutxi direla uste duen arren, bere ustez piromanoak dira arriskutsuenak eta Euskal Herriko mendietan izaten diren suteen atzean interesak izaten direla ziur dago. Mendizainaren iritziz, baimena izan edo ez, artzain askok suak pizten dituzte inguruak txukundu edo larrak hartutako belazeak garbitzeko. “Pare bat piromano bakoitzeko, milaka nekazari edo artzain arriskutsu daude”. Horren harira, Nikolas Rege rat suhiltzaile lapurtarrak 2000. urteko otsai-

lean gertatua ekarri du gogora: “Ezterenzubin (Nafarroa Beherea) tragedia handia gertatu zen orduan, artzain batek piztutako suak mendian zebiltzan bost pertsona inguratu eta bertan hil baitzituen”. Baina Rege rat kapitainak uste du: “Azken urteetan behera egin du sute kopuruak pertsona horiek ez dutelako aukera onik ukan surik pizteko, baina parada izaten dutenean ez dute galtzen uzten”. Gainera, ziur dago gauze pizten dituztela, errazago hanka egiteko.

Piromanoak gutxi ala asko izan, gehiago dira gizakiaren axolagabekeria edo hasiera batean kontrolatuta piztu eta eskuetatik ihes egingdako txinpartak. Bizkaiko Aldunditik diote istripuz edo nekazaritzako arloetan egiten diren garbiketengatik, sutea sortu duenaren kontroletik haratago joaten bada, larrialdietara egiten dutela dei. Kasu hauetan erantzuna emateko denbora laburra izaten da eta

suteak amatatzeko baliabideak epe laburrean jartzten dira. Bizkaiko Aldunditik diotenez, mendiko bide sare onei eta suteen prebentzioan lan egiten dutenei esker salbatzen dira mendi-sail asko urtero. Hego Euskal Herrian 263 basozain daude mendi eta basoak zaintzen.

Suteen errudunak harrapatzea ez da lan samurra izaten, kea zeruan nola, hala desagertzen baitira hauek. Piromanoek neurri guztiak hartzen dituzte ez ditzaten harrapatu. Egun, eragindako kaltearen arabera izaten da ordaindu

Duela 25 urte, Arabaren laurdena ke artean joan zen, 2.667 hektarea erre baitziren 105 sutetan. Iaz, berriz, 25 hektarea 38 sutetan

beharreko zigorra. Ez dira gehiegi aldatzen kopuruak probintzia batetik bestera, eta adibidez, Gipuzkoan urraketa arinak 1.000 euro arteko zigorra dute, larriek 10.000 artekoa eta oso larriek 100.000 eurorainokoa. Larritasuna kalteak konpontzeko kostuaren eta denboraren arabera sailkatzen da. Kode penala aplikatuz, kartzela zigorrak ere ezar daitezke: sua piztu baina sutea ez badu eragin, sei hilabete eta urtebete artean; sutea sortuz gero, urtebete eta bost urte artean; eta sutean pertsonen bizia arriskuan jarri badu, 10 eta 20 urte arteko kartzela zigorrarekin zigor daiteke eragilea. Regeerat suhiltzailea pozik da legeak ere gogortzen ari direlako denborarekin. “Ezterenzubiko gertaera tris-tearen ostean, adibidez, prefektak legea gogortu zuen suak noiz eta nola piz daitezkeen zehaztuz”.

Sutearen jatorria identifikatzeko, kataluniarrek oso teknika aurreratuak dituztela dio Zapirainek. Belar eta adaxken zein alde dagoen beltzago aztertuta, haizearen norabidea zehazten dute, eta horrekin batera, sua nondik etorri den. Honela, pixkana-pixkana, mendi oso bat kiskali ostean, sua piztu den metro koadroraino hel omen daitezke eta bertan pospolo bat aurkitu.

### Basoberritzea eta prebentzioa

Sutea izan ondoren, baso ingeniariaren esku geratzen da basoberritze plana egitea. Lurzoruaren ezaugarriak, basoaren altuera, mendiaren forma, inguruko erreken ugaritasuna eta beste zenbait faktoreri begiratu erabakitzen dute zein diren berriz ere landatzeko zuhaitzik egokienak.

Sua geratzeko baso itxiak, pagoak, izei sailak eta antzeko ezaugarriak dituzten zuhaitzak behar izaten dira. Bigarren maila batean leudeke haritz eta urritzak, suari bere neurrian, baina aurrera egiten uzten baitiote. Azkenik, euka-

# Errenteriako LIBURUA OPARI KANPAINA

Euskara Zerbitzuak,  
Eguberrietako LIBURUA OPARI kanpaina  
martxan jarri du.

Ekimenak, irakurzaletasuna bultzatzea du helburu,  
batetik, eta euskarazko liburu produkzioari  
bultzada ematea, bestetik.

Ikastetxeetan banatu ditugun txartelak,  
liburu-dendetan aurkeztuta,  
euskaraz idatzitako liburuetan  
%25eko deskontua egingo zaie.

Liburuak Errenteriako liburu-dendetan  
eskatu ahal izango dira.

Epea: Urtarrilaren 5era arte.





DANI BLANCO

lipto eta pinuek suaren aurka ez dute ezer ere egiten eta azkar hartzen dute su, izan ere, hauek erraz baimentzen baitute lurrean sas-trakak jaioztea, eta horiek dira suteen kausa nagusiak. Euskal Herriko basoetan pinua da nagusi, baina orain, pixkana-pixkana, beste zuhaitz motak ari dira ereiten. “Suteen ondoren beti horiek landatzen zituztenean, atzean interes ekonomiko argiak zeuden. Orain berriz, pinu-egurraren balioak behera egin du eta ekologia indar-hartzen doa, CO<sub>2</sub>aren aurka hobeak baitira haritz edo pagoak, eta aisirako ere, zer nolako ezberdintasuna bazter guztiak sastrakez betetako pinudi batetik pasioan ibiltzearen edo haritzek sortzen duten gerizpe txukunetik ostera egitearen artean!”, dio Zapirain basozainak.

Etxeak berreraiki, kalte ordainak jaso, eta azkenerako lur eremuaren zati bat berriz ere berdatzen joaten da. Alabaina, dena lehen zegoen bezala geratzea ezinezkoa izaten da. Lur eremu publikoetan hazitako basoa izanez gero, berriz ere erein egiten da. Zapirainen hitzetan, pribatua bada, askotan nazkatu egiten dira basoa zaintzeaz eta ez dute berriz ere landatzen. Hala egin nahi badute, instituzioen aldetik diru laguntza bereziak jasoko dituzte kaltetuek.

Administrazio guztiak bat datoz: sutea gertatu ostean, sutearen kausak bilatzen dituzte

“Azken urteotan sute kopuruak behera egin badu, piromanoek aukera onik izan ez dutelako izan da”

NIKOLAS REGERAT, SUHILTZAILEA

Nikolas Regerat Hendaia-ko suhiltzaileen kapitainak ere badaki urritik aurrera hasten dela benetako arriskua.

eta planifikazioan egindako akatsik ikusten badute, hori konpontzeari ekiten diote. Su ebaikiak egin, mendira heltzeko pistak hobetu edo elektrizitate zutoinen bat izan bada txinpartaren sorburua, neurriak hartzen dituzte. Honez gain, sentsibilizazio kanpainak egiten dituzte, biztanlegoaren kontzientzia eragin asmoz.

“Egungo gizarte aurreratuan denetik dugu: basozainak, suteen aurkako sentsibilizazio

DANI BLANCO





Jaizkibel (Gipuzkoa) da Euskal Herrian suteek gehien kaltetutako mendietako bat eta su ebakiak begi bistakoak dira.

kanpainak hedabideetan, suhiltzaileak beren kamioi, helikoptero eta abarrekin; baina kontua da, gure aiton-amonon garaian apenas izaten zela suterik mendietan”, dio Errenteriako mendizainak. “Lehen jende asko nekazaritzatik bizi zenez, mendiak txukun-txukun izaten zituzten eta honez gain, esango nuke jendea ez zela hain axolagabea”. Azken urteotako beheranzko joera euskal biztanleria

kontzientziatu egin denaren seinale litzateke, baina bai Nikolas Regerat eta baita Juanito Zapirainek ere lanean jarraitu beharko dute, gerta daitekeen edozein gorabeherari aurre egiteko. Denboraren joanarekin, errenteriarak koadernoan zuhaitzik sendoenak markatzen jarraituko du eta agian, ez du paper zuriko zuhaitzen garapenik “kiskalita” hitz beltzarekin erre beharko. ■

**Suta Gar**

**HURRENGO KONTZERTUAK**

ABENDUAK 14 L'HOSPITALET  
SALAMANDRA ARETOAN

ABENDUAK 29 ANDOAIN  
GAZTETXEAN

GURE WEB ORRIAN ETA DURANGOKO AZOKAKO  
ELKAR BAHAKETAK STANDEAN, BESTE AZKEN  
LAN GUZTIAK ERE TOPATUKO DITUZU:

- SU TA GAR 2005 EGUTEGIA
- MORE VOLUMEN TOUR 95 DVD
- JAINKO HILEN URARTEAN CD

kontratazioa: 619116974  
www.sutagar.com

ABENDUAK 4  
UNE IRAUNKORRAK  
DVD BERRIA KALEAN!

UNE IRAUNKORRAK

Suta Gar

JTE 05

UD TA RE EROIZPENAK DVD